6-8
URTE

MIGRAZIOA ETA BABESA

MUGARIK GABEKO ESKUBIDEAK:

LINAREN ERABAKIA

OXFAM Intermón

kaleidoskópio

JARDUERAK
2. zk.
2017 ekaina

Lina dut izena

Egunon denoi. Lina naiz, zazpi urte ditut eta Lehortegi izeneko herri polit-politean bizi naiz. Marko eta Said lagunekin jolastea da gehien gustatzen zaidana. Oso maiz joaten gara baloiarekin jolastera herriko irteeratik gertuko basora, harresiaren ondo-ondoan dagoena. Egunero bezala, aurrekoan ere Marco, Said eta ni basora joan ginen baina, halako batean, Markok sekulako ostikada eman zionez, baloiak harresia jo, tximista bezala zuhaitzetara irten eta adaburu batean geratu zen. Said eta ni arbolara igo ginen eta, gora iritsita, harresiaz beste aldera, han urrutian, inondik espero ez genuena ikusi genuen: harresiaz beste aldera etxeak zeuden, pertsonak zebiltzan kaleetan gora eta behera, umeak jolasean eta... harritzekoa: den-denek ilea urdina zuten. Ezin sinetsita nengoen! Han bazegoen zerbait arraroa, nik aurkitu behar nuena.

Lina Marco Said

JARDUERA

Kontatu dizuedan narrazio horretako gauza batzuk ezin izan ditut ulertu. Lagunduko al didazue, mesedez?

1

Zergatik dago Lehortegiren inguruan harresia, zuen iritziz?

2

Zer da harresi bat? Zertarako balio du?

3

Zuen herrian ba al dago harresirik? Zertako balio dute?

Itsastirin eta Lehortegin bezala, munduan ugari dira harresiak, hesiak, mugak... herriak eta herritarrak elkarrengandik bereizteko. Bilatu etxean, ea horien argazkirik topatzen duzuen. Galdetu gurasoei eta senideei, horiek lagunduko dizuete-eta.

Jarduera guztiak garatzeko argibide gehiago dituzue gida didaktikoan.

Lehortegi eta Itsastiri

Narrazioarekin aurrera egingo al dugu? Baloia eskuratuta, etxera korrika itzuli eta aitonarengana joan nintzen, harresiaz beste aldeko itsas herri hartan nor bizi ziren galdezka. Honela kontatu zigun aitonak:

"Baziren han bi herri, elkarren ondokoak, eta bietako herritarrek harreman estua zuten. Lehortegi zen gure herria eta itsas aldean Itsastiri zegoen. Ni Itsastirin jaio eta bizi izan nintzen eta zuen amona, berriz, Lehortegin. Maiz ibiltzen ginen biok, orain basoan, orain hondartzan, paseoan. Amonari hondartzak tiratzen zion eta nik basoan ibiltzen nintzen gustura. Senide eta lagun asko genituen biok bai Lehortegin, bai Itsastirin ere.

Urte askotan bi herriak bakean bizi izan ziren, zoriontsu. Gauza asko partekatzen genituen eta beste batzuetan, berriz, iritzi desberdina genuen. Itsastiritarrok ilea urdina genuen. Lehortegitarrek, berriz, kolore desberdinetakoak: beltza, gorria,

Linaren aitona

zuria... Urdinik ez, ordea. Batzuen iritziz, urdin kolorea itsasoa gertu izatearen ondorio omen zen; beste batzuen aburuz, arraina eta itsaskiak jatearen eragina. Ez dakigu zergatik; kontua da gure ileen koloreak bestelakoak zirela.

Dena ondo zihoala, halako batean itsastiritar batek eta lehortegitar batek borrokaldi latza izan zuten. Arrazoiaz inor ez da gogoratzen baina, pixkanaka, bi herrietako lagunak mesfidati agertu ziren ondoko herrikoekiko. Ile urdinekoak gaizto eta arriskutsuak ginela esaten hasi ziren. Bateko eta besteko herritarren arteko haserrealdi eta borrokak ugaltzen hasi zirenez, bi herriak bereiziko zituen harresi bat altxatzea bururatu zitzaien batzuei: horrela, ondo bidean, liskarrak amaituko ziren. Beste herritar batzuek, aldiz, hura erokeriatzat hartu zuten: beti-beti elkarrekin bizi izan ginenez, harresiak alferrikakoak zirela zioten. Hauen iritziz, bazegoen bestelakoak izan eta elkarrekin bizitzea.

Kontuak kontu, harresia eraikitzen hasi ziren. Hasieran txikia zenez, jauzitxo bat eginda, Lehortegitik Itsastirira eta alderantziz pasatzen ginen erraz. Pixkanaka, ordea, alkateak eta herritar batzuek gehiago altxatu zuten, elkarrekiko mesfidantza geroz eta larriagoa zelako. Harresia altuagoa eginez gero, alde batekoak ezingo ziren pasatu beste aldera.

Goiz batez Lehortegira joan nahi izan nuen, amona ikustera eta, bide batez, betiko lagunekin kartetan jokatzera. Garbitu, txukundu, jantzi eta etxetik atera nintzen, jertsea bizkar gainean ipinita, ilunabarrean hoztuko zuelakoan. Hara heldu eta, ezin sinetsirik geldítu nintzen: harresia altu-altua zen, ezin zen erraz gainditu. Eskailera edo antzeko zerbait behar zen, beste aldera pasatzeko.

JARDUERA

Horrek biziki tristetu ninduen... nola gerta zitekeen halakorik?

- Zer iruditu zaizue aitonaren kontakizuna?
- Zerk harritu zaituzte gehien?
- Zergatik diote desberdinak direla? Desberdin izatea arazoa al da?
- Zergatik? Gauza askotan berdinak gara gizakiok: horiek baloratu beharko genituzte. Bakarren bat bururatzen al zaizue?

Etxetik ekarri dituzuen argazkiekin horma-irudia osatuko dugu. Gaia: munduko herritarrak elkarrengandik bereizten gaituzten hesiak, harresiak, mugak. Gelan jorratzeko aztergaia: harresiak eta mugak zer diren eta zertako balio duten.

Badago historia aldatzea

Herritarrak elkarrengandik bereizten dituzten harresiez eta mugez egin dituzuen gogoetak oso-oso interesgarriak dira, noski. Seguru nago: gizakiok, elkarrizketaren bidez, gure arteko desberdintasunak onartu eta gure problemak konponduko genituzke; horrela, gure herriak zoriontsuago biziko lirateke, bakean. Ederra litzateke, bereizten gaituzten harresiak deseginda, gure herriak elkarrekin eta bakean bizi ahal izatea, ezta?

Egon pittin bat, oraindik badugu-eta zer eginik. Aitonaren kontakizuna irakurtzen jarraitzea merezi du...

JARDUERA

Horregatik, patioan edo ikastetxeko beste leku batean harresia altxatzea proposatuko dizuet: "Bidegabekerien horma" deituko dugu eta, amaieran, behera botako dugu.

Horma hori kutxa edo tetrabrikekin osatuko dugu; horiek adreilu modukoak izango dira eta horietako bakoitzean, egun hauetan ikusiko ditugunez, gure gustukoak ez diren eta besteengandik apartatzen gaituzten gauzak eta ideiak idatziko ditugu. Geroago sartuko gara xehetasunetan. Oraingoz, aholkua hau da: hasi biltzen tetrabrikak edo kutxak eta idatz itzazue gustatzen ez zaizkizuen ideiak eta gauzak... denak lurrera eraisteko!

— Baina... zuek ezin izan zenuten ezer egin harresiaren eraikuntza oztopatzeko, aitona?—, galdetu nion.

— Hasieran, Lina, herritarrak elkarrekin haserre zeuden, haserre bizian; batzuk elkar joka ere aritu ziren, pentsa! Ni han ez nintzen ausartzen. Amonak, berriz, ahaleginak egin zituen, herritarrekin hizketan jardunez, arazoa ulertu nahian, harresia alferrikakoa izango zela ulertaraziz... Alferrik, inork ez zuen arrastoan sartu nahi. Elkarrengandik geroz eta mesfidatiago agertzen ginen, desberdinak ginelako. Ez dago mesfidantzaz eta beldurrez bizitzerik, Lina.

Azkenean, zuen amonarekin bakean bizi nahi baldin banuen, behin betikoz sorterritik Lehortegira alde egin beharko nuela deliberatu nuen. Gau batean, eskailera bat hartu eta, harresia

gaindituta, Lehortegira etorri nintzen. Ez ni bakarrik, ordea: jende asko pasatu zen herri batetik bestera, motxila eta maletak hartuta. Huraxe izan zen harresia gainditzeko azken aukera: biharamunean, horma izugarri altua izango zenez, eguzkiak eta ilargiak bakarrik ikusiko zuten herria. Orduan konturatu nintzen Itsastiriko senideak, lagunak, lankideak, itsasoa... seguru aski ez nituela berriro ikusiko. Horrela izan zen eta horrela izango omen da....", amaitu zuen aitonak, goibel-goibel.

— Ez dago eskubiderik, aitona! — arrapostu nuen—. Inork ezin digu galarazi gure adiskideekin egotea, senideekin bizitzea, nahi dugun lekuan lan egitea, itsasoa ikustea... Ez al zaudete ados?

JARDUERA

Aitonaren historia ezagututa, jorratu gelako ikaskideen artean:

- Z ergatik dago triste, zuen ustez?
- Zergatik erabaki zuen herritik alde egitea?
- Nola sentituko zinatekete, etxetik alde egin beharko bazenute, bakean bizitzeko?
- Zergatik dio Linak ez dagoela eskubiderik?

Historia horren inguruan gogoeta egiteko, aspalditik ezaguna duzuen jokoan aritzea proposatuko dizuet: katearen jokoa da. Patiora joan beharko dugu.

Jarraibideak

Leku zabala behar dugu, korrika egingo dugu-eta. Hasteko, hiruzpalau neskato-mutiko, eskutik helduta (katea osatuta), pistaren erdialdean ipiniko dira, Itsastiri eta Lehortegi bereizten dituen harresi modukoa osatuta.

Gainerako gaztetxoak herritarrak zarete eta alde batera eta bestera joan beharko duzue. Helburua da harresia pasatzea, katea osatzen dutenek harrapatu gabe.

Garrantzi handikoa:

Harrapatzaile bakarrak kate-muturrekoak dira, tartekoak ez.

Erdialdeko arkuetatik edo muturretatik pasatzen bazarete, beste aldera iritsi ahal izango zarete, salbu.

Katea osatzen dutenak eskutik askatzen badira, ezin dute inor harrapatu.

Katea osatzen duzuenok harrapatzen baduzue norbait, hori katean sartuko da, "harresia" geroz eta luzeagoa eginez.

Orain, une batean atseden hartuz, kate jokoan sentitu dugunaz hitz egingo dugu.

- Nolako sentsazioak izan dituzue? (Adibidez, beldurra, amorrua, alaitasuna, urduritasuna, lasaitasuna...).
- Noiz sentitu dituzue horrelakoak, jokoaren hasieran, pasatzen lortutakoan, harrapatuta sentitzean...?
- Nolako sentsazioak bizi izan zituen Linaren aitonak, zuen ustez, pasatu ezinik gelditzean?

Mugarik gabeko eskubideak

Aitonak kontatu digunak biziki kezkatu nau. Badakit pertsonak batzuetan haserre eta mokoka ibiltzen garela gauza desberdinak lortu nahi ditugulako, baina oso tristea da zure etxetik alde egin behar izatea bakerik ez dagoelako eta horma tartean bizi behar izatea beti, ateratzeko edo sartzeko aukerarik gabe.

Desberdina izatea, nire iritziz, ez da zertan arazoa izan, denok ditugulako besteak ez bezalakoak bihurtzen gaituzten gauzak eta besteen berdinak bihurtzen gaituzten gauzak. Horrek esan nahi du besteengandik asko ikasteko dugula, beraiekin partekatuz gero, ezta? Maiz, agian, gehiegi erreparatzen diegu bestelakotasunei eta gutxiegi berdintasunei, ez al zaizue iruditzen?

JARDUERA

Orain, gai hori jorratzeko, beste joko bat proposatuko dizuet: mundua koloretan. Hasteko, irakasleak bekokian pegatina bana ipiniko dizue.

Hori ezingo duzue kendu. Ondoren, hitzik esan gabe, taldeak sortu behar dituzue, zuen erara...

Hitzik ez esatea garrantzi handikoa da. Goazen aurrera!

- Jokoa gustatu al zaizue? Zergatik bai / zergatik ez?
- Nola osatu dituzue taldeak? Taldea osatzea erraza izan al da?
- Norbait gelditu al da talderik gabe? Zergatik?
- Nola sentitu zarete? Zergatik? "Bestelakoa" izatean, zer sentitzen da?
- Taldeak nola tratatu ditu "bestelako" horiek?
- Beste modu bateko taldea egiterik izan al dugu? Ba al dugu bestelako ezaugarri komunik?

Beldur, mesfidantza eta borrokaldi ugari haien ondorioz, aitona bere jaioterrira itzuli gabe bizi izan da eta ni bezalako herritarrek behin ere ez dute ikusi harresiaz beste aldera dagoena. Hori bai burugabekeria! Ez zaizue iruditzen? Ederra litzateke bereizten gaituen horma hori behin betiko eraisteko formula aurkitzea, bi herriak bakean eta zoriontsu bizi daitezen. Lagunduko al didazue horretan?

JARDUERA

Nola bota genezake harresia behin betiko? Zuek asmatu beharko zenukete konponbidea, Lehortegi eta Itsastiri berriro bat eginik eta bakean bizi daitezen?

Burua erabili, pentsa ezazue zer egin beharko luketen hori lortzeko. Jorratu hori gelan eta egin denon artean marrazkiak, harresia eraisteko erabakia nola hartu zen azalduz. Ondoren, gelako kide guztiok onartuko duzuen amaiera hautatuko duzue. Zuen azken marrazkia bosgarren bineta izango da.

JARDUERA

Elkarrengandik aparte luzaro bizi izanik, horma eraitsi ondoren zer egin zuten bi herrietako lagunek, zuen ustez, berriro elkar ikusi zutenean?

- Zerk harritu omen zuen herritarra, beren buruaz eta besteez? Desberdintasunen ondorioz berriro arazoak izan zituztela uste al duzue? Izan bazituzten, nola konpondu zituzten? Akaso ez zuten arazorik izan, desberdin bihurtzen zituen ezaugarri hura ezagutzea gustukoa izan zuten akaso, bitxia edo interesgarria zelako...

Gai hori gelan jorratu ondoren, denon artean marrazki bat egin dezakezue, herritarren artean gertatu zena adierazteko. Marrazki hori seigarren bineta izango da, atzenekoa. Horrela, kontakizun hau ipuin ederra bihurtuko duzue.

Seguru nago, kontakizun honetarako amaiera zoragarriak asmatuko zenituzten. Azkenean, bi herrietako herkideok ulertu genuen harresia eraitsi behar genuela eta gu ados jarri behar ginela, gure desberdintasunak errespetuz baloratuz.

Ederra da orain gure bizimodua, bakean bizi gara eta bi herrien artean gabiltza jolasean beti. Adiskide berriak egin ditugu eta, nik, Lehortegin bizi ziren senideak ezagutu ditut, azkenean.

Apurtu harresiak!

Azkenean, Itsastiri eta Lehortegiren arteko harresia bota egin dugu. Baina, ikusi dugunez, badira munduan beste harresi asko, pertsonak elkarrengandik apartatzen dituzten ideia asko. Horregatik, orain proposamen bat egingo dizuegu: aste hauetan topatu ditugun ideiak batu eta horiekin harresi bat ("bidegabekerien harresia") eraikitzea: hori ere, behin betirako eraitsiko dugu.

#DerechosEnMovimiento

JARDUERA

Horretarako, aste hauetan bildu eta garbitu ditugun tetrabrikak eta kutxak erabiliko ditugu. Horietako bakoitza adreilu bat izango da. Tetrabrikeko alderdi batek dituen neurrietako hiru paper zuri ebakiko ditugu. Gu elkarrengandik apartatzen gaituzten hiru gauza edo hiru ideia adierazi behar dituzue eta horiek marraztu edo beren izenak idatziko dituzue. Era berean, argazkiak hartu eta paper zurietan itsats ditzakezue.

Harresia eraikitzeko beste geletakoen laguntza onartuko duzue: nahi baduzue, eska iezaiezue adreilu gehiago ekar ditzaten edo, harresia elikatzeko, marrazkiak, esaerak, argazkiak... ekar ditzaten. Nahi baduzue, ikastetxean bertan erakusketa egin dezakezue, marraztu dituzuen bineta eta asmatutako amaiera horiekin osatua. Erakusketarako inbitazioa egin diezaiekezue senideei, auzo-lagunei, Udaleko pertsonei, etab., haiek ere istorioa ezagutu, parte hartu eta harresia eraisten lagun dezaten.

JARDUERA

Egun hauetan ikasi duguna inoiz ez ahazteko, gelako ikaskide guztion artean, hurrengo esaldiak osatu behar dituzue, nahi baduzue. Ondoren, eskegi itzazue horman, egunero-egunero gogoratu ahal izateko.

> ..... gelako neska-mutikoek
..... aurkitu dugu.

> ..... gelako neska-mutikoei
..... gustatzen zaigu.

> ..... gelako neska-mutikoek
.....
..... nahi dugu.

kaleidoskópio

OXFAM Intermón